

# 9/23

## *irizpena*

EAEko Erkidegoko sektore publikoaren esparruan arau-hausteen berri emateko eta informatzaileak babesteko barneko informazio-sistema sortu eta arautzen duen

**Dekretu-proiektuari buruzkoa**

**Bilbon, 2023ko maiatzaren 29a**



**CES  
EGAB**

Consejo Económico  
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea

Irizpena 9/23

---

## I.- AURREKARIAK

---

2023ko maiatzaren 17an, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren idazki bat sartu zen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean, *“Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren esparruan arau-hausteen berri emateko eta informatzaileak babesteko barneko informazio-sistema sortu eta arautzen duen Dekretu-proiektuari”* buruzko txostena eskatzeko, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzko maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Kontsultatu diguten arauaren xedea da arau-urratzeei buruzko informaziorako eta informatzaileak babesteko barne-sistema sortzea Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren esparruan, otsailaren 20ko 2/2023 Estatuko Legean, arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzen duenean, aurreikusitako baldintzetan, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko urriaren 23ko 2019/1937 (EB) Zuzentaraua, Batasunaren Zuzenbidearen arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesari buruzkoa, betez.

Berehala bidali zitzairen dokumentuaren kopia Kontseiluaren Osoko Bilkurako kide guztiei, beren proposamenak eta iritziak bidal zitzaizkien eta dagokion Lan Batzordeari helaraz ziezazkieten, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamenduari buruzko Erregelamenduan ezarritakoaren arabera. Garapen Ekonomikorako Batzordea 2023ko maiatzaren 26an bildu ostean, hartutako erabakietatik abiatuta, irizpen-proiektu hau egin da Batzordearen osoko bilkurak lan dezan. Bertan maiatzaren 29an aho batez onartu da.

## II.- EDUKIA

---

*“Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren esparruan arau-hausteen berri emateko eta informatzaileak babesteko barneko informazio-sistema sortu eta arautzen duen Dekretu-proiektuak”* honako hauek ditu: zioen azalpena, lau kapitulutuan egituraturako 20 artikulua, bi xedapen gehigarri, hiru xedapen iragankor eta bi azken xedapen.

Zioen azalpenean azaltzen denez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko urriaren 23ko 2019/1937 (EB) Zuzentarauak, Batasunaren Zuzenbidearen arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesari buruzkoak, Batasunaren Zuzenbideko arau-haustek aurkitzeko eta prebenitzeko giltzarritzat jotzen du, interes publikorako kaltegarriak baitira, beren lan-jardueren testuinguruan arau-hauste horien berri izan eta arau-hauste horiei buruzko informazioa ematen duten pertsonak betetzen duten zeregina.

Zuzentarau honen bidez, informatzaileen babes eraginkorra bermatzeko Europar Batasunaren esparruan aplikatu beharreko gutxieneko arau erkideak jasotzen dira, interes publikoa babestearren. Horretarako, haren 26.1 artikulua nahitaezko transposizioa ezartzen du, eta adierazten du *“estatu kideek indarrean jarriko dituztela zuzentarau honetan ezarritakoa betetzeko beharrezkoak diren lege-, erregelamendu- eta administrazio-xedapenak”*.

Estatuko 2/2023 Legeak, otsailaren 20koak, arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzen duenak, 2019/1937 Zuzentaraua txertatzen du Espainiako Zuzenbidean, eta Zuzenbide positiboan jasotzen du lan- edo lanbide-testuinguru batean arau-haustek detektatu eta bertan araututako mekanismoen bidez jakinarazten dituzten pertsonak babesteko funtsezko helburua.

Gainera, haren eremu materiala 2018/1937 Zuzentarauan jasotakoaz haratago hedatzen da, gure ordenamendu juridikoaren arau-hauste penal eta administratibo larri eta oso larriak ere barnean hartuta, eta arau-hauste horien artean sartzen dira Ogasun Publikoarentzat eta Gizarte Segurantzarentzat kalte ekonomikoa dakarten arau-hauste guztiak.

Babes horren hartzaileak dira, aipatutako arau-hausteen berri emanda, sektore publikoko zein pribatuko erakundeekin lotura profesionalak edo lan-loturak dituzten pertsona guztiak, bai eta harreman profesionala, boluntarioak, praktikaldian edo prestakuntza-aldian daudenak, edo hautaketa-prozesuetan parte hartzen duten pertsonak ere. Informatzaile gisa jarduten dutenei laguntza ematen dieten pertsonen, errepresaliak jasan ditzaketen bere inguruko pertsonen eta informatzailearen jabetzako pertsona juridikoen ere ematen die babesa, besteak beste.

2/2023 Legeak ezartzen du beharrezko mekanismoak sortu behar direla, legea hedatzen den maila eta eremu guztietan gauzatzeko. Horrela, agintari publikoek kudeatutako kanpoko kanalak daudela jasotzeaz gain, enpresen barruan eta erakunde publiko guztietan informazio- eta salaketa-bideak sortzea eta antolatzea ezartzen du. Hori hala izanik, barne-sistema hau jardunbide irregularrei buruzko informazioa lehentasunez erabiltzearen alde egiten du, eragindako erakundeak berak horren berri izan dezan. Izan ere, erakundearen barruan jarduera arduratsu eta eraginkor bat eginez gero, ikertutako jardueren ondorio kaltegarriak geldiarazteko eta eragindako kalteak ahalik eta lasterren konpontzeko aukera ematen du.

Otsailaren 20ko 2/2023 Lege honek Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren eremuan sartzen diren erakunde eta antolakundeentzat duen lotura juridikoari dagokionez, haren edukia administrazio publikoen araubide juridikoaren oinarritzko alderdietako bat da, eta nahitaez bete behar da zuzenean. Ondorioz, 2/2023 Lege honen oinarritzko araudiaren izaerarekin bat etorritik, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko bakoitzari dagokio lege hori sortzea eta arautzea.

Horren ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan aplikatu nahi dira, Euskal Sektore Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2023 Legearen II. tituluan jasotako baldintzetan, 2/2023 Legean jasotako aurreikuspenak, eta arau-hausteei buruzko informazioa helarazten duten pertsonak informatzeko eta babesteko barne-sistema bat eratu nahi da.

Sektore publikoko erakunde eta entitate guztiek izan beharko dute barne-sistema hori, eta, beraz, dekretu honen bidez artikulatutako erabakia barne-sistema komun bakarra eratzea da, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakunde guztiak barne hartuko dituen.

Bestalde, Sektore Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2022 Legean jasotako printzipioari erantzuteaz gain (ekonomiaren irizpidean eta erakunde-helburuei baliabideak egoki esleitzean oinarrituta antolatzeari buruzkoa da lege hori), EAEn otsailaren 20ko 2/2023 Legearen aurreikuspena behar bezala betetzea lortu nahi da; izan ere, EAEko antolamendu-eskema osoa barneko informazio-kanal bakar batean biltzearen ondorioz, gure eremuan ezarri berri den sistema berritzaile horri eta haren kudeaketa- eta ikerketa-mekanismoei, bai eta arau-urratzei eta informatzaileak babesteari buruzko informazioaren barne-sistemaren arduradunari ere, administrazio- eta gizarte-arloko onarpen-maila gorena esleituko zaie.

Gainera, onartu beharra dago 2019/1937 Zuzentarauaren eta otsailaren 20ko 2/2023 Legearen agindua ez dela mugatzen aipatutako barne-informazio-sistemak sortzera; izan ere, erakunde edo organismo bakoitzeko administrazio-organoari edo gobernu-organoari ezartzen dio informazioak kudeatzeko prozedura onartzea, konfiantzaren eta inpartzialtasunaren oinarritzko ezaugarrien arabera,

informatzaileen kaltegabatasuna behar bezala bermatuz eta babestuz eta informatzailearen nortasunaren konfidentziasunari, irigarritasunari, arintasunari eta jasotako informazioak kudeatzeko eta ikertzeko eraginkortasunari buruzko oharrei erantzunez.

Halaber, ikerketa-jarduketei erantzuteko gehieneko epea zehaztu behar da. Epe hori ezin izango da hiru hilabetetik gorakoa izan, jakinarazpena jasotzen denetik zenbatzen hasita. Halaber, errugabetasun-presuntzioa eta eragindako pertsonen ohorea errespetatzeko exigentzia ezarri behar da, bai eta datu pertsonalak babesteari buruzko xedapenak errespetatzekoa ere. Gainera, informazioa fiskaltzara berehala bidaltzea ezarri behar da, jakinarazpenaren xede diren egitateak zantzuen arabera delitu izan ahal direnean. Gertakari horiek Europar Batasunaren finantza-interesei eragiten badiete, informazioa Europako Fiskaltzara bidali beharko da.

Bestalde, otsailaren 20ko 2/2023 Legeak zehazten du informazioaren barne-sistemak sistemaren arduradun bat izan behar duela, pertsona fisiko hori izendatzea beharrezko organismoaren gobernu-organoari baitagokio, eta bere eginkizunak modu independentean eta autonomoan bete beharko ditu erakunde edo organismoaren gainerako organoetatik, eta ezingo du inolako jarraibiderik jaso hura gauzatzean, eta jarraibideok gauzatzeko behar diren giza baliabide eta baliabide material guztiak izan beharko ditu. Barne-sistemaren arduradun izendatutako pertsonaren ezaugarri horiek funtsezko ohar horiek bermatuko dituen oinarritzko estatusa aitortuko duen organo gisa eratu behar da juridikoki.

### III.- GOGOETA OROKORRAK

---

Gure irizpenaren pean jarri dute *“Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren esparruan arau-hausteen berri emateko eta informatzaileak babesteko barneko informazio-sistema sortu eta arautzen duen Dekretu-proiektua”*.

Otsailaren 20ko 2/2023 Estatuko Legearen eta 2019/1937 (EB) Zuzentarauaren agindua betez, positibotzat jotzen dugu EAeko sektore publikoaren esparruan Batasunaren Zuzenbidearen aurkako arau-haustek eta interes publikoarentzat kaltegarriak diren arau-hauste penal eta administratibo larri edo oso larriak salatzen dituzten edo horiei buruzko informazioa ematen duten pertsonari babes eraginkorra bermatzea helburu duen ekimen hau.

Dekretu honen bidez, EAeko Sektore Publikoaren antolamenduaren esparrura eramaten da Europar Batasunaren xedapen horrek adierazitako asmo orokorra. Herritarren lankidetzeta eta arau honetan arautzen diren Informazio Sistema zuzen hedatzea tresna garrantzitsua izango dira balizko iruzur-egoerak eta ustelkeria-egoerak saihesteko.

Bestalde, adierazi nahi dugu positiboki baloratzen dugula antolaketa-eskema autonomiko osoa informazio-kanal bakar batean biltzea, eta horrek zerbitzua espezializatzen, eskala-ekonomietan eta irizpide bakar bat ezartzen lagunduko duela, nahiz eta efizientzia hori giza baliabideen eta baliabide materialen hornidura nahikoarekin bakarrik bermatuko den.

### IV.- GOGOETA BEREZIAK

---

#### 5. artikulua. Aplikazio-eremu pertsonala

Argiagoa izan dadin, artikulua honen **1. paragrafoan letra lodiz** nabarmendutako gehikuntza iradokitzen da:

*“1. Laugarren artikuluan aurreikusitako arau-hausteei buruzko komunikazioa eta informazioa arau-hauspenen informaziorako eta informatzaileak babesteko Dekretu honetan araututako barne-sistemaren bidez aurkeztu ahal izango dute **aurreko 3. artikuluan aipatutako** Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeetan lan- edo lanbide-testuinguru batean arau-hauste horiei buruzko ezagutza lortu duten pertsonak, betiere subjektu hauek barnean hartuta:...”*

### **11. artikulua. Aurkezpena jaso izanaren agiria**

Artikulu horrek xedatzen du aurkeztutako komunikazioa jaso izanaren agiria igorriko zaiola informatzaileari. *“Komunikazio hori bitarteko elektronikoen bidez egiten ez bada, eta horrek berehalako hartu-agiria eskatzen badu, jaso eta gehienez ere zazpi egun naturaleko epean formalizatuko da, salbu eta horrek haren konfidentzialtasun egokia arriskuan jar badezake”.*

Harrigarria da elektronikoki aurkezten ez diren komunikazioetan jaso izanaren agiria egitea, jaso eta zazpi egun naturaleko epean.

Gure ustez, jakinarazpena dagokion administrazio-leihoan entregatzeko unean eman daiteke hartu-agiria, eta, nolana ere, zazpi eguneko administrazio-epea izan dezake barne-sistemaren bulegoan eraginkorra izateko.

### **12. artikulua. Triajea**

Deigarria egiten zaigu artikulua izenburua medikuntzaren esparrukoa izatea (“trajea”). Adibidez, «Balioespen-prozesua» izenburua izan dezake.

### **13. artikulua. Ikerketa-fasea**

Oro har, uste dugu artikulu hau nahasgarria dela bere atalen xedapenean, eta askoz ere argiago geratuko litzatekeela bi azpiataletan banatuz gero: lehena, salatutako egitateak zantzuen arabera delitu diren kasurako, eta bigarrena, gainerako kasuetarako prozedura arautuko lukeena.

Lehenengo kasurako, **2. atalak** xedatzen duenez, *“Jakinarazpenean jasotako egitateak, zantzuen arabera, delitu izan badaitezke, Sistemaren arduradunak berehala igorriko dio informazioa Fiskaltzari, eta haren jarduna amaitutzat joko du, eta horren berri emango die informatzaileari eta eragindako erakundea edo erakundea atxikita dagoen saileko sailburuari, bai eta barne-informazioko sistema hau atxikita dagoen saileko titularrari ere, hori guztia, jarduketa horiei buruzko balizko sekretu-deklarazio judizialaren kasuan egin beharreko erreserbaren kalterik gabe”.*

Atal honen idazketa berrikustea gomendatzen da, salatutako pertsonaren errugabetasun-presuntzioa bermatuta gera dadin beti. Horrela, salatutako egitateak Fiskaltzari igorriko zaizkio, baldin eta, zantzuen arabera egiaztatu ondoren, egitate horiek delitu izan daitezkeela ondorioztatzen bada.

Era berean, hurrengo paragrafoek sarrera bat izan beharko dute, salatutako egitateak, egiazkoak badira ere, delitu ez diren kasuetan ikerketa garatzeari dagokionez.

### **20. artikulua. Babes-neurriak hartzea**

20.3 artikuluan eta lehenengo eta bigarren xedapen gehigarrietan aipatzen diren gertakarien, neurrien eta abarren publikitateari dagokionez, uste dugu, hobeto ulertzeko, testua argiagoa izatea komeni dela, bai eta aipatutako gardentasun-atarietan argitaratzeko epeak eta baldintzak zehaztea ere.

## V.- ONDORIOA

---

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ustez, egokia da *“Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren esparruan arau-hausteen berri emateko eta informatzaileak babesteko barneko informazio-sistema sortu eta arautzen duen Dekretu-proiektua”* izapidetzea, betiere kontsulta-organo honek egindako oharrak aintzat hartuz.

Bilbon, 2023ko maiatzaren 29a

O.E. Presidentea

Emilia M. Málaga Pérez

Idazkari nagusia

Olatz Jaureguizar Ugarte